


KRITIKA OPERA

Jesus Mari Begoña



XOUSA SIMAL

Helmut Pampuch eta Heikki Siukola abeslariak, *Siegfried*-en emanaldiko eszena batean.

'Siegfried' bikaina

'Siegfried'

Egilea: Richard Wagner. **Abeslariak:** Heikki Siukola, Helmut Pampuch, Alfred Muff, Franz Josef Kapellmann. **Musikariak:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Günter Neuhold. **Zuzendaritza eszenikoa:** P. Caurier, M. Leiser. **Ekoizpena:** Genevako Grand Theatre. **Lekua:** Bilboko Euskalduna jauregia. **Eguna:** Urriak 20.

Goiari eutsi zion, OLBERen aurtengo denboraldiko bigarren emanaldian, Wagnerren *Nibelungoaren Eratzuna* tetralogiaren *Siegfried* musika-drama luzeak. Hau da Bilbon antzeztu den lehen aldia. Guztien gaitetik, Heikki Siukola suomiar *heldentenorea*, Gunter Neuhold zuzendaria eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa nabarmendu ziren, baina primerakoak izan ziren gainontzeko abeslariak eta aparteko eszenografia ere.

Siegfried heldutasunezko lana izanik, Wagnerren ezaugarriak ditu, eta zailtasunak ere. Iraupen luzeak *etengabeko doinua* —ia lau ordukoa— 57 motibo nagusiren ildoetatik garatzen

da eszenografia konplexuaren artean. Siukola tenore 'heroikoak', *Siegfried*-en rolean-, gorpuzaldia, entrega, bolumen handiko ahots metalikoa eta erregulartasuna azaldu zituen bere kantaldi luzean barrena. Lerro kantatu zehatzagoa eman zuen harroputza eta borrokazale den izaeran maitasunezkoan baino. Berak jaso zuen publikoaren gora-goraka eta txaloaldirik handiena.

Pareko mailarik ez zuen erakutsi Helmut Pampuch tenore arinak, Mime ipotx gaiztoaren rol komikoan, eder antzeztu eta zuzen kantatu arren. Ahots biribila aldiz, gustuko kantua eta eszenaratze ona adierazi zuen Alfred Muff baxu baritonoak, Wotan, jainko patetikoaren rolean. F.J.Kapellman baxuak ahots politarekin taularatu zuen Albercih-en rola. Gustatu zitzaizgun J: Rodescuren baxu sokenaren ahotsa, Fafner dragoiaren kantatzean. Emakumezkoen artean, Brünnhilde walkiriaren rolean Nadine Secunde sopra-

no dramatikoak gozo abestu zuen idilioaren azken eszena, bere ahots dardarti eta atseginarekin.

Erda ama lurren rolean Mette Ejsing kontraltoak ahots tinbratua erabili zuen beheko erregistroan. Eta Tatiana Davidovak, txoriarena abesten, ederki biribildu zuen bere kantaldi laburra bezain zaila.

Eszenaratze ikusgarria

Günter Neuhold zuzendariak, wagneriar irakurketa oso ona egin zuen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren aurrean, bikain. Kopuruaren aldetik bakarrik, sumatu genuen musikarien falta.

Ez dugu uste, ustelkeria edo amodioa gure egunetara igarotzeko, egungo arropak edo altzariekin lortu zutenik. Bai ordea, ikusgarriak ziren bigarren eta hirugarren ekitaldiko esparru, argiztapena, eszena baliabideak, eta batik bat, maitaleen topaketarako aldats-behera zegoan gainazal altxatua.

KRITIKA MUSIKA

Jesus Mari Begoña

Ludger Lohmann

Egitaraua: Bach, Sweelinck, Mozart, Rinck, Reubke. **Lekua:** Bilboko Euskalduna jauregia. **Eguna:** Urriak 21.

Ziurtasuna eta biribiltasuna erakutsi zuen Ludger Lohmann pianistak bere esku eta hankekin. Interes handiko musikaldia eskaini zuen bi teklatu eta *pedalier*-eko organo nagusiarekin jo zuen lehen zatian. Barroko garaiko Bach maisuaren *Toccat*a ponpoxa eta *Adagio* lirikoa ur jautzien naturaltasunarekin en-

Atseгина

tzun ziren. Berpizkunde eta Barrokoaren arteko Bach-en aitzindaria dugu J.P. Sweelinck. *Unter Der Linden grüne* lanarekin gozatu genuen, adakiek ematen zizkiguten tinbre konbinaketa egokiak. Mozarten lan apal eta alaiaren atzetik, C.H.Rinck klasisista eta estilo desberdinen nahasle den lan harrigarria eraman gintuen pianista apartak. Julius Reubke-ren *Sonata*

do minor-eko bigarren atala lau teklatuzko eta pedaladun kontsola mugikorrarekin. Erromantiko garaiko lan konplexu horrek musikaren historian diren prozedurak, konbinaketa konplexuak tinbretan, denboretan edo dinamikan eskaini zizkigun idazkera aurrerakoiaren bidez. Lohmann adituak hegan egin zuen teklatu desberdinetatik. Estiloen erakustaldiarekin bukatzeko, txaloei erantzuteko, gure artistak jazz eta organo modernoaren akorde disonanteekin agurtu gintuen.

KRITIKA MUSIKA

Montserrat Auzmendi del Solar

Hau kemena!

Latica Honda-Rosenberg eta Eldar Nebolsin

Lekua: Donostiako Kursaalako auditorioa. **Eguna:** Urriak 22.

Ganbera-musika heavy-a entzun genuen aurreko astelehenean Kultura Musikaleko Elkartearen kontzertuan. Ikasturteari hasiera emateko bikote berezi eta mundiala ekarri ziguten antolatzaileek eta dudarik gabe asmatu zuten, hain sarritan sufritzen ditugun epelkeria musikaletatik urrun ibili baitzen saioa.

Latica Honda-Rosenberg biolin joleak aiurri indartsuko musikaria dela frogatu zuen. Ikaragarritzko teknikaren jabea, interpretazio urratuak dira bere espezialitatea eta era horretan aritu zen kontzertu osoan, gorputz eta arima emanda. Berak bakarrik betetzen zuen oholtza, eta, ondorioz, bigarren plano batean geratu zen Eldar Nebolsin piano jolea, nahiz eta interpretazio akatsgabea eskaini, matizatu eta maila artistiko berekoa.

Brahmsen *Sol maiorreko Sonata* opari bat izan zen entzuleontzat. Biolinaren soinu boteretsu eta betea eta Honda-Rosenbergen matizazio gaitasuna deigarriak izan ziren, hasierako *Vivace ma non troppo* mugimendutik. Nebolsinek dotoreziaz lagundu zuen, biolinaren protagonismoa ukatu gabe baina behar den distira hartuz solo-etan. Ondo asmatu zuten Brahmsen eskatzen dituen giro aldaketekin: iluntasuna baltzuetan eta argitasuna besteetan. *Adagio*-an nabaria izan zen biolin jolearen kontrola *pianissimi*-ak nahiz nota bi-

koitz perfektuak jotzerakoan. Azkeneko *Allegro molto moderato*-aren bertsioa, berriaz, arina eta airezkoa izan zen, tenpo egokiaz eta teknika depuratu batez baliaturik emaitza gardena lortzeko.

Autore beraren *Do minoreko Scherzo*-a (*FAE Sonata*-koa) interpretazio indartsuaren adibidea izan zen. Jotzeko era oldartsuaren erakargarritasuna nabarduren gaitetik geratu zen, baina hala ere primerako bertsioa disfrutatu genuen.

Estilo boteretsua

Bigarren zatian, Prokofieven txanda izan zen. Aurreneko *Bost melodia op. 35* kontrastez beterikoak iritsi zitzaizkigun: kementsua eta soinu handikoa *Animato ma non allegro* hirugarrena, jostalari eta apetatsua *Allegretto leggero scherzo* den laugarrena, besteak beste. Prokofieven *Re maiorreko 2. Sonata op. 94* lana mugarik gabeko teknika erakustaldia izan zen. *Presto*-aren deabrukeria mekanikoak erraz gainditu zituen Honda-Rosenbergekin eta amaierako *Allegro con brio*-an segurtasuna eta Prokofieven estiloaren menderatze izugarria erakutsi zuten biek. Hala eta guztiz ere, beren estilo boteretsu eta zapaltzaile samarrak zertxobait nekatu gintuen bukaera aldean. Normala: nahiz eta heavya gustukoa izan, gaindosiak ez dira komenigarriak. Propinetan, Fritz Kreislerren *Siciliane et Rigaudon* gozo eta aldi berean bertuosistikoak eta *Rosemarie* vals adeitsuak *kitsch* tanta bat erantsi zioten saio eder honi.

FOLKLORE ETA KULTURA
TRADIZIONALARI BURUZKO
XVII. JARDUNALDIAK

Urriak 24

• Hasierako Ekintza

• Hitzaldia: *Nuevas tecnologías para viejos problemas: de espectrógrafos, zortzikos y ezpata-dantz*

(Carlos Sánchez Equiza. *Etnomusikologoa*)

Lekua: Nafarroako Museoa - Iruñea.

Ordua: 19:30etan.

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



ORTZA
Euskal Folklore Taldea